

EUSKAL-ERRIA

REVISTA VASCONGADA

T.º LXXII | SAN SEBASTIÁN 28 DE FEBRERO DE 1915 | N.º 1123



PABLO DE GOROSABEL

PABLO GOROSABEL

KONDAIRAGILLE ARGIDOTARRA

GIPUZKOA-KO berriak jakin nai ditubenentzako au da iturri jatorrena. Onen liburuetan asaltzen dira antziñako gertaera go-goangarriak.

Tolosarra zan, uri leñargi ontan jayo zan 1803^{-garren} urteko Ilbeltzaren 16^{-an}; eta tolosarra zan ez bakarrik jayotzez baizik jayoerriyari ziyon naitasun neurrigabez. Uri batzarreko lagun, askotan izantzan ta alegiñ aundiyak egin zituben bere uria alik ta goyena ikustearengatik.

Ala zan 1850^{-garren} urtian, ta Apirilla-ren 30^{-an} egin zuten billeran agindu zioten bildu zitzala uri artako berriak, eta orduban argitaratu zuben «Bosquejo de las antigüedades, gobierno, administración y otras cosas notables de Tolosa», izentzat duben liburu otsaundikua. Liburu ortan arkitzen dira uri oni dagozkiyon berri mota guziak.

Gipuzkoa-ri antziñatik gordetzen diran paperen gorde-zai zegon Gorosabel, eta orrengatik emengo egipen zar guzien berri iñork baño obeto zezaken, ta ala 1860^{-garren} urtian argitaratu zuben «Diccionario geográfico histórico de Guipúzcoa» non arkitzen diran jakin nai ala berri.

Geruago, 1863^{-garren} urtian, emengo Batzar naguziak amar milla errial-eko sari bat ezkeñi zuben gipuzkoarrak ingelesakin izan zituzten gora-beren gañian onduena idazten zubenarenentzat, eta irabazi zuben Gorosabel-ek, bere liburu «Memoria sobre las guerras y tratados de Guipúzcoa con Inglaterra en los siglos XIV y XV» izendatua gatik.

Donostian il zan 1868^{-garren} urteko Ilbeltza-ren 23^{-an}, eta utzi zuben amaitua bere gain gañeko «Noticias de las cosas memorables de Guipúzcoa» izentzat duben liburu maitagarria. Ez da urte asko liburu au argitaratu zala ta euskaldunen artian guziz gogokua da.

Goitu zagon tolosar zintzo ta jakintzuen izen atsegiña.